

IRAUPEN
LUZEKO ZAINKETAK
PERTSONALIZATZEKO
JARDUNBIDE EGOKIEN
AINTZATESPENAK



GIRO ATSEGINA

ERCILLA EGUNEKO ZENTROA.
ERAKUNDE KUDEATZAILEA:
ERCILLA EGOITZA S.L.

F ARDATZA: ARKITEKTURA ETA INGURUMENA

GARAPENA

ABIAPUNTUA

Frogatuta dago lotura zuzena dagoela diseinu arkitektonikoaren eta ongizate subjektiboaren artean. Ingurune positiboak sortzea, pertsoneri arreta ematearekin batera, **POA** ereduaren zutabeetako bat da.

Ercilla eguneko zentroaren plangintza eta diseinua hasi zenean, pertsonen autonomia eta independentzia, gizarte-harremanak eta kolektibo bateko kide izatea sustatuko zituzten espazioak lortzera bideratu ziren helburuak, intimitatearen eta indibidualtasunaren babesa ahaztu gabe. Laburbilduz, erabiltzaileak eta erabiltzailearentzat pentsatutako arkitektura, pertsona ardatz duen arkitektura

Duela gutxi arte eraikitako eguneko zentroetan barrena ibiliz, ikusi genuen arretaren ideia eta antolaketa batetik abiatzen zirela, eta pertsonen autonomia oso murriztuta zegoela. Antolamendu-helburuetatik soilik eratorritako arauak egotea, arreta malgutasun gutxikoa izatea, programatutako zereginetan zentratua, pertsonen zaintzan erabiltzaileek beren erabakiak hartzeko gaitasuna murrizten zutenak eta eguneroko bizitzaren gaineko benetako kontrola gauzatzen zutenak.

Zentro horien arkitektura inpersonala izan da, eta funtzionaltasuna, higieena eta araudia betetzea ziren nagusi, erabiltzaileen ongizatea lehenetsiko duten giroak sortzearen gainetik.

LANDU BEHARREKO BEHARRAK

POA eredia arautzen duten printzipioei jarraiki, hauek izan dira Ercilla eguneko zentroaren diseinuaren gakoak eta gaiaren jorraketa:

- Zentroa erabiltzaileen memoriaren parte den ingurune batean kokatzea.
- Ingurune terapeutikotzat jotzen den kanpo-paisaia bat izatea.
- Zentroa diseinu unibertsaleko irizpideekin planifikatzea, edozein erabiltzailek erabil dezan, haren egoera fisikoa eta/edo kognitiboa edozein dela ere.
- Elkarreragin soziala sustatzen duten espazioak.
- Independentzia sustatzen duten espazioak.
- Zentzumenen estimulazioa sustatuko duen zentroaren diseinua.
- Argiztapen naturala duten giroa eta espazioak.
- Barruko airearen kalitatea eta aireztapena zaintzea.
- Giro afektibo eta seguruak sortzea.
- Kodiseinua, hau da, erabiltzaileek zentroaren diseinuan eta dekorazioan parte hartzeko aukera, espazioak ahal den neurrian pertsonalizatzeko.



GIRO ATSEGINA

ERCILLA EGUNEKO ZENTROA.**ERAKUNDE KUDEATZAILEA: ERCILLA EGOITZA S.L.****EZARPEN-PROZESUA**

Ercilla eguneko zentroaren diseinua eta eraikuntza 2016ko udan hasi zen, eta urte bereko azaroan amaitu zen. Hala ere, erabiltzaileekin batera egindako baterako diseinu-prozesuak eta dekorazioak orain arte jarraitu dute, eta etengabeko prozesua izango da etorkizunean. Epe laburreko proiektuak ere badaude, zentroko erabiltzaileentzat giro lagunkoia lortzeko mesedegarriak izango direnak.

Zentroaren kokapenari dagokionez, Zurbaran auzoko lokal batean eraiki zen, beheko solairu batean, kalerako sarbide zuzenarekin eta Etxebarria parkearen aurrean dagoen fatxadaren zati batekin.

Hasieratik, zentrorra joaten diren pertsonen %95 auzoan edo auzotik oso gertu bizi dira. Horrek beren bizimoduak etxean jarrai dezan laguntzen du, gizarte-harremanei eusteko aukera ematen baitu (horietako asko ezagunak dira eta auzokoak ere badira), eta ingurune ezagun eta seguru batean daude haien zentzuz, eta, aldi berean, eragina du haien espazio-orientazioan.

Bestalde, zentroa Etxebarria parkearen aurrean dago, Bilboko industria-historiaren leku enblematikoan. Bertan, eguneko zentroko erabiltzaile askok lan egin zuten, eta, gainera, ingurune terapeutikotzat hartzen den kanpo-paisaia bat da.

Kanpoko ikuspegia funtsezko diseinu-araua da, argiaren presentzia errazten duena eta espazio- eta denbora-orientazioa errazten duena. Hori dela eta, parkearen aurrean dagoen zentroaren fatxada osoa bi leihate handirekin diseinatu zen, gure erabiltzaileek gozatzeko.

Gainera, kanpoko espazioek (lorategiak, terrazak...) erabiltzaileen bizitza aktiboa eta giro seguru eta kontrolatuetan duten independentzia errazten dute. Alde horretatik, zentroak oinezkoentzako kanpoko gunek bat du, sarrera eta/edo irteera bakarrek, gure erabiltzaileen segurtasuna bermatzen duena, eta, aldi berean, aire zabaleko jarduerak egiteko aukera ematen duena.



Gimnasio ingurutik kanpoko ikuspegiaren argazkia.



Zentroaren kanpoko terrazaren argazkia



GIRO ATSEGINA

ERCILLA EGUNEKO ZENTROA.**ERAKUNDE KUDEATZAILEA: ERCILLA EGOITZA S.L.**

Lehen aipatu dugun bezala, zentroa diseinu unibertsaleko irizpide batzuen arabera sortu zen, hau da, pertsona guztiek beren egoera fisikoa eta/edo kognitiboa edozein izanda ere erabil eta uler ditzaketen espazioak diseinatu.

Gune guztietara iristeko erraztasuna eta erabateko irisgarritasuna bermatze aldera, eta erabiltzaile guztien independentzia eta segurtasuna bermatze aldera, zentroa gune argi, zabal eta orientazio errazeko bakar gisa diseinatu zen, une oro leku eta eremu guztiak aurkitu, identifikatu eta erabili ahal izateko. Gainera, kartel eta/edo marrazki bidez seinaleztatzeak errazagoa egiten du identifikazioa. Diseinu horrek efektu bisual ona ematen du, eta, horri esker, alde batetik, pertsona bera erraz orientatzen da, nahasmen-egoerak gutxituz, eta, bestetik, zaintzaileei horiek ikusteko eta haiei begira egoteko aukera bermatzen die, horrela zentroko kide guztien antsietatea murriztuz.

Espazio guztiak funtzio anitzekoak dira, baita jantokia ere, eta jatorduetatik kanpo ere tailerrak egiten dira, hala nola musikoterapia edo gozogintza. Horrela, hainbat jarduera eskaintzen dira denbora berean, eta erabiltzaileak aukeratu dezake zein jardueratan parte hartu nahi duen.

Komuneko seinaleen eta zentroko beste sarbide batzuen argazkia

Bestalde, zentroak elkarreragin soziala, topaketak eta pertsonen arteko komunikazioa bultzatzen eta sustatzen dituzten espazioak sortu ditu.

Zentzumenen estimulazioari dagokionez, gure zentroaren diseinuaren ezaugarrietako bat aniztasun kromatikoa da eremu guztietan. Frogatuta dago koloreak erabiltzeak eragina duela pertsonen izaeran eta egoeran. Horretarako, gure ustez, zentroa gune bakarra bada ere, interesgarria litzateke zona bakoitza kolore desberdinarekin bereiztea, alde batetik, erabiltzaileen orientazioa erraztuko lukeena eta, bestetik, erabiltzaileen jarduera eta aldartea sustatuko lukeena.

Horrekin batera, aireztapen ona eta airea berritzea, zentroaren barruko eta kanpoko airea trukatzeko sistema baten bidez, bai eta argi naturala erabiltzea ere, zentro osoan tamaina eta altuera desberdineko leihateen bidez. Sabai altuek zabaltasun eta argitasun sententzioa ematen dute, estutasunaren edo espazio itxiaren pertzepzioa ezabatzen dutenak eta egunaren zati bat bertan igarotzen duten pertsonen ongizatean eragin positiboa dutenak.

Giro afektibo eta seguruak sortzea da gure zerbitzua diseinatzeko beste helburu nagusietako bat. Eremu guztietan landare naturalak egoteak, erdiguneari giro fresko eta naturala emateaz gain, erabiltzaileek ere haien zaintzan parte hartzeko balio dute.

Eguneko zentroek, egoitzek ez bezala, ez dute eremu erabat pertsonalik erabiltzaileek beren intimitatea, gauza pertsonalak eta egoiliarra etxean sentiarazten duten tresnak (logelak, esaterako) edukitzea.

Eguneko zentro bateko erabiltzaileek beren etxea dute, eta egunero joaten dira gizarte-jarduerak egitera eta harremanak izatera; hala ere, horrek ez du esan nahi zentroak inpersonala, aseptikoa eta zentzu esanguratsurik gabekoa izan behar duenik haientzat.

Pertsonen zentroko dekorazioan parte hartzea giro afektibo eta seguruak sortzeko modu bat da. Zentzu horretan, espazio guztiak dira beraiek egindako eta etxetik ekarritako apaingarrien protagonistak. Beren etxeko liburuak eraman eta beste ikaskide batzuekin trukatu ahal izateko liburutegi txiki bat sortzea eta erabiltzaileen jatorrizko herrietako laminak eta argazkiak erakustea txoko esanguratsuak sortzeko beste modu batzuk dira. Era berean, ez zen kasualitatea izan erdiguneko horma batzuetan





binilo bat aukeratzea, ganadua lasai bazkatzen den zelai bat birsortuz. Zentrora joaten diren pertsona gehienak baserri-giro batetik etortzen dira, non animalia horiekiko kontaktua egunerokoa zen haientzat. Hori dela eta, eszenografia honen efektu bisualak sustraia gogorarazten ditu, eta, neurri batean, baita beren bizitza pertsonala ere.

EMAITZAK ETA ERAGINA

Arestian aipatu dugun bezala, Ercilla eguneko zentroa 2016. urtearen amaieran eraiki zen. Hala ere, zentroaren diseinua eta dekorazioa atzerailikadura-prozesu baten parte dira, eta zentroaren eta zentroko kideen bizitzarekin batera aberasten da.

Epe laburrean, zentroa girotzeko proiektu bat dago, eta barruko airearen kalitatea eta aireztapena are gehiago hobetuko ditu.

Zentroak azken urteetan izan duen okupazio-indize altua, bai eta bertako plaza-eskariarena ere, berez emaitza positiboa da, eta, ziur aski, arestian azaldutako guztiarekin lotuta dago; hala ere, diseinuaren inpaktua eta zentroan sortutako giroa datu horretara murriztea ez litzateke nahikoa eta partziala izango. Horregatik, badira beste parametro batzuk gure zentroan egindako lanak ez ezik, zentroak berak, bere arkitekturak eta diseinuak ere duen eragina adierazten digutenak. Parametro horietan, erabiltzaileek egunero zentrora joateko izaten duten motibazioa, garatzen diren jarduera guztietan eta beraiek proposatzen dituzten jardueretan duten parte-hartze maila altua, erabiltzaileek berek eta haien familiak kanporatzen dituzten ondorio positibo eta terapeutikoak, bai gogo-aldartean, bai gaitasun funtzional, psikologiko eta sozialetan.

Laburbilduz, uste dugu zahartzearen eraldaketa positiboak arkitekturatik erantzun bat izan behar duela. Diseinua zahartzearen aldaketa- eta birdefinizio-prozesu horren parte izan behar da, non pertsonak eta haien duintasuna izango diren diseinuaren xede nagusia, ingurune irisgarriak, erosoak, seguruak, esanguratsuak eta bereziki inklusiboak lortuz.

Helburu horrekin lanean jarraituko dugu.